



Akonastegi etxebizitza

Aldakerak:

Ahozkoa:



43° 10' 18"

2° 34' 17"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

XX. mendean eraikitako etxea da, Olabe etxe multzora doan bide ondoan kokaturik.

Eraikin oso luzanga dugu. Lau isurkiko teilatua dauka, eta gailurra fatxada nagusiarekin paraleloan kokatua. Guztiz era simetrikoan antolatuta dauka fatxada, hiru gorputz balitu moduan:

erdian atarte zabala du, egurrezko zutikoak eutsitako dintelaren azpian, eta alboetan, osterara, gorputz bana bi neurritako leihoekin, kutsu klasikodun plakekin inguratuta. Etxearen barnea harrizkoa da, harlangaitzezkoa, alegia, eta bestea luzituta ageri da, pertsianen egur ilunak bizituta.

toponimia

Izena iluna da eta ez dakigu zer esan nahi ote zuen, nahiz eta litekeena izan ondoan kokaturik dagoen Akonastegi iturritik izena hartu izana.